**<u>GOBERNU BATZARRA</u>**

**2009. 05. 18**

**Beh. Beh. Alkatea:**

**Jokin Azkue Arrastoa**

**Zinegotziak:**
**Olatz Peon Ormazabal**
**Andoni Iturzeta Arbillaga**
**Onintza Lasa Arteaga**
**Yurre Peñagarikano Zubeldia**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

**Tolosako Udaletxean, bi mila bederatziko maiatzaren hemezortzian, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.**

**1.- Aurreko akta onartzea.**

**2.-E.45 "Igarondo" Eremuaren Hirigintza Exekuzioaren hitzarmena, behin betiko onespena/ Aprobación definitiva del convenio de ejecución urbanística del Area R.45 "Igarondo".**

**3.-E.48 "Tolosana" Eremuaren Hirigintza Exekuzioaren hitzarmena behin betiko onespena/ Aprobación definitiva del Convenio de ejecución urbanística del Area R.48 "Tolosana".**

**4.-Tolosako San Blaseko Ur bilteki berritik hornidurarako ubideak berritzeko proiektua./ Proyecto de renovación de las bajadas de abastecimiento desde el deposito nuevo de San Blas en Tolosa.**

**5.-934/2009 zk.dun Alkatetza Dekretua berrestea.**

**6.- Aprobación de la 17ª Certificación de las obras de rehabilitación del edificio 1-A de Euskal Herria plaza para Centro Estable de Marionetas.**

**7.- 8.zenbakia duen faktura-zerrenda.**

**1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2009ko maiatzaren 11n egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

**2.-E.45 "Igarondo" Eremuaren Hirigintza Exekuzioaren hitzarmena, behin betiko onespena/ Aprobación definitiva del convenio de ejecución urbanística del Area R.45 "Igarondo".**

Gobernu Batzar honek, 2009ko otsailaren 16an egindako bileran, onespena eman zuen E.45 "Igarondo" eremuko Hirigintzako egikaritzapenari, Bista Alai, SA-k aurkeztutakoari.

Esta Junta de Gobierno, en sesión celebrada el día 16 de febrero de 2009, resolvió aprobar la propuesta de Convenio de Ejecución Urbanística del área R.45 "Igarondo" promovido por Bista Alai, S.A..

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2009ko apirilaren 7ko 65. zenbakia) hitzarmena jendaurrean jarri zen 20 eginez, interesaturik daudenek egokitzat dituzten alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Mediante anuncio publicado en el B.O. de Gipuzkoa nº 65, de 7 de abril de 2009, se procedió a la apertura de un período de información pública de 20 días, a fin de que las personas interesadas pudieran presentar las alegaciones oportunas.

Egun horretan bertan hitzarmenaren testua argitaratu zen, bere osotasunean.

Con dicha fecha se publicó, asimismo, el texto íntegro de la propuesta de convenio.

Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Durante el período de información pública no se ha presentado alegación alguna.

Bestalde, BISTA ALAI, S.A.k, hitzarmena sinatu ahal izateko eskatutako bermea aurkeztu du.

Por otra parte BISTA ALAI, S.A., ha presentado el aval exigido para la firma del convenio.

Aipatutako guztiaren aurrean eta Hirigintza batzordeak jaulitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo ello, y de conformidad con el dictamen emitido por la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**LEHENA**.- BISTA ALAI, S.A.-k

**PRIMERO**.- Aprobar el Convenio de

sustatzen duen E.45 “Igarondo” eremuko Hirigintzako egikaritzapen hitzarmanari onespena ematea.

Ejecución Urbanística del ámbito R.45 “Igarondo”, promovido por BISTA ALAI, S.A.

**<u>BIGARRENA</u>**.- Tolosako Udaleko Alkate Lehendakari ahalmentzea, onartutako hitzarmena udalaren izenean izenpetzeko.

**<u>SEGUNDO</u>**.- Facultar al Alcalde-Presidente de la Corporación para que suscriba, en nombre del Ayuntamiento de Tolosa, el citado convenio.

**3.-<u>E.48 “Tolosana” Eremuaren Hirigintza Exekuzioaren hitzarmena behin betiko onespena/ Aprobación definitiva del Convenio de ejecución urbanística del Area R.48 “Tolosana</u>”.**

Gobernu Batzar honek, 2009ko otsailaren 16an egindako bileran, onespena eman zion E.48 “Tolosana” eremuko Hirigintzako Egikaritzapenari, Bista Alai, S.A.-k aurkeztutakoari.

Esta Junta de Gobierno, en sesión celebrada el día 16 de febrero de 2009, resolvió aprobar la propuesta de Convenio de Ejecución Urbanística del área R.48 “Tolosana”, promovido por Bista Alai, S.A..

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2009ko apirilaren 7ko 65. zenbakia) hitzarmena jendaurrean jarri zen 20 eginez, interesaturik daudenek egokitzat dituzten alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Mediante anuncio publicado en el B.O. de Gipuzkoa nº 65, de 7 de abril de 2009, se procedió a la apertura de un período de información pública de 20 días, a fin de que las personas interesadas pudieran presentar las alegaciones oportunas.

Egun horretan bertan hitzarmenaren testua argitaratu zen, bere osotasunean.

Con dicha fecha se publicó, asimismo, el texto íntegro de la propuesta de convenio.

Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Durante el período de información pública no se ha presentado alegación alguna.

Bestalde, BISTA ALAI, S.A.k, hitzarmena sinatu ahal izateko eskatutako bermea aurkeztu du.

Por otra parte, BISTA ALAI, S.A., ha presentado el aval exigido para la firma del convenio.

Aipatutako guztiaren aurrean eta Hirigintza batzordeak jaulitako

Por todo ello, y de conformidad con el dictamen emitido por la comisión

diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**LEHENA**.- BISTA ALAI, S.A.-k sustatzen duen E.48 "Tolosana" eremuko Hirigintzako egikaritzapen hitzarmanari onespena ematea.

**PRIMERO**.- Aprobar el Convenio de Ejecución Urbanística del ámbito R.48 "Tolosana", promovido por BISTA ALAI, S.A.

**BIGARRENA**.- Tolosako Udaleko Alkate Lehendakari ahalmentzea, onartutako hitzarmena udalaren izenean izenpetzeko.

**SEGUNDO**.- Facultar al Alcalde-Presidente de la Corporación para que suscriba, en nombre del Ayuntamiento de Tolosa, el citado convenio.

**4.-Tolosako San Blaseko Ur bilteki berritik hornidurarako ubideak berritzeko proiektua./ Proyecto de renovación de las bajadas de abastecimiento desde el deposito nuevo de San Blas en Tolosa.**

Ikusita Tolosako San Blaseko ur biltegi berritik hornidurarako ubideak berritzeko proiektua eta proiektu honek ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

Visto el Proyecto de Renovación de las bajadas de abastecimiento desde el depósito nuevo de San Blas en Tolosa y la relación de bienes y derechos afectados por dicho proyecto.

Ikusita gaiari buruz jaulki diren eta espedientean ageri diren txostenak eta Hirigintza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Vistos los informes emitidos al respecto y que obran en el expediente, así como el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**LEHENA**.- Hasierako onespena ematea honako proiektu honi: TOLOSAKO SAN BLASEKO UR BILTEGI BERRITIK HORNIDURA-RAKO UBIDEAK BERRITZEKO PROIEKTUA eta proiektu honek ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendari.

**PRIMERO**.- Aprobar inicialmente el "PROYECTO DE RENOVACION DE LAS BAJADAS DE ABASTE-CIMIENTO DESDE EL DEPOSITO NUEVO DE SAN BLAS EN TOLOSA", así como la relación de bienes y derechos afectados por la ejecución de dicho proyecto, según anexo.

Ubideak berritzeko proiektua ondoren zehazten diren baldintzekin onartzen da:

**1.1.-** Lanek iraun artean oinezkoen eta ibilgailuen joan-etorriak bermatzeko beharrezko segurtasun neurriak hartu beharko dira.

**1.2.-** Egungo zoladura berritzeaz gain, ukitutako bideak mantendu egin behar dira.

**1.3.-** Finken itxiturak lehen zeuden bezala utzi behar dira, baita obrek ukitutako edozein elementu ere.

**1.4.-** Egungo zoruaren ezaugarriei lotuko zaie zoladura berria, zolatutako zonaren zabalera areagotuz 0,30 metro ertzetan, zangaren zabalerarekiko.

**1.5.-** Hornidura arketen estalkietan EDATEKO URA idatzi behar da.

**1.6.-** Obra amaierako dokumentuetan ibilbide zehatza, kotak eta puntuen arteko tarteen erreferentziak, sakonerak eta jarritako hodien diametro ezberdinak adierazi behar dira. Hori guztia, euskarri informatikoan eta UTM koordinadak erabilita aurkeztuko da, eta horrez gain, bestelako zerbitzuekin gurutzatzean edota tokian tokiko ezaugarrien eraginez lan egiteko zailtasunak areagotzen dituzten guneen argazkiak atxikiko zaizkio obra amaierako dokumentari.

**1.7.-** Lanak amaitzean, zerbitzuko pertsonalak beharrezkotzat jotzen dituzten probak egingo dituzte momentuan (estankotasuna...) baita kanalizazioak martxan jarri aurretiko

El Proyecto se aprueba con el siguiente condicionado:

**1.1.-** Durante la ejecución de la obra será necesario establecer las medidas de seguridad correspondientes pra asegurar el paso peatonal y rodado.

**1.2.-** Junto a las reposiciones del pavimento existente será necesario mantener los accesos afectados.

**1.3.-** Las reposiciones comprenderán la restitución a su estado inicial de cierres de finca y cualquier elemento afectado por las obras.

**1.4.-** La reposición del pavimento se realizará menteniendo las características del firme existente, ampliando el ancho de la zona pavimentada en los extremos 0,30 metros al ancho de la zanja.

**1.5.-** Las tapas de arquetas de abastecimiento deben de llevar la leyenda EDATEKO URA.

**1.6.-** La documentación fin de obra vendrá con el trazado exacto así como con cotas y referencias de distancias, profundidades y diámetros de las conducciones instaladas, todo ello en soporte informático y coordenadas UTM, además se realizarán fotografías de los puntos más problematicos bien sea por cruce con otros servicios bien por la complejidad del lugar y se aportarán en dicha documentación fin de obra.

**1.7.-** Al finalizar el trabajo se realizarán las pruebas que el personal del servicio estime necesarias en el momento (estanqueidad...), incluyendo la limpieza previa puesta en servicio

garbiketa-lanak ere.

**BIGARRENA**.- Aipatutako proiektua eta bere espedientea jendaurrean ipintzea 15 egunez. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historiko honetan tirada gehien duen egunkarian edo egunkarietan. Gainera, iragarki hori Udaletxeko iragarki taulan jarriko da agerian, eta erabakia espedientean interesatu gisa agertzen diren guztiei banan- banan jakinaraziko zaie.

**ERANSKINA**

**UKITUTAKO FINKEN ZERRENDA**

**1.- Finka:**
**Titularra:** Mª Teresa Insausti Reguillaga eta beste batzuk.
**Helbidea:** Aritzio baserria. San Blas auzoa. 20.400 Tolosa.
**Izaera katastrala:** Landatarra 03 poligonoa-043 partzela (zk. Finkoa: 0316801-U).
**Zortasuna: 330 m$^2$**
**Aldi baterako okupazioa: 825 m$^2$ .**

**2. Finka:**
**Titularra:** Mª. Teresa Insausti Regillaga eta beste batzuk.
**Helbidea:** Aritzio baserria, San Blas auzoa. 20400 Tolosa**.**
**Izaera katastrala:** Landatarra.03 poligonoa –045 partzela (zk.finkoa: 0316801-U).
**Zortasuna:** 72 m$^2$
**Aldi baterako okupazioa:** 180 m$^2$ .

de las canalizaciones.

**SEGUNDO**.- Someter el referido proyecto y su expediente a información pública por el plazo de 15 días, procediendo, a estos efectos, a publicar los correspondientes anuncios en el Boletín Oficial de Guipúzcoa y en uno de los diarios de mayor circulación de la provincia, además de que el mismo se exponga en el tablón de anuncios de la Corporación. Igualmente, este acuerdo será notificado individualmente a cuantas personas aparezcan como interesadas en el expediente.

**ANEXO**

**RELACION DE FINCAS AFECTADAS**

**Finca nº 1:**
**Titular:** Mª Teresa Insausti Reguillaga y otros.
**Domicilio:** Caserío Aritzia, Barrio San Blas. 20400 Tolosa.
**Naturaleza Catastral:** Rústica. Polígono 03- Parcela 043 (Núm. Fijo: 0316801-U).
**Servidumbre: 330 m$^2$**
**Ocupación temporal: 825 m$^2$.**

**Finca nº 2:**
**Titular:** Mª Teresa Insausti Reguillaga y otros.
**Domicilio:** Caserío Aritzio, Barrio San Blas, 20400 Tolosa.
**Naturaleza Catastral:** Rústica. Polígono 03- Parcela 045 (Núm. Fijo:0316801-U).
**Servidumbre:** 72 m$^2$
**Ocupación temporal:** 180 m$^2$

**5.- <u>934/2009 zk.dun Alkatetza Dekretua berrestea</u>**.

Gobernu batzar honek, aho batez berresten du 934/2009 zenbakia duen Alkatetza Dekretua, hitzez hitz honela dioena:

*“ Jokin Bildarratz Sorron Tolosako Udaleko alkateak emana.*

***Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak “Merkagune-Herri Merkataritza merkataritza-lankidetzako zonako estrategiak sustatzeko laguntzak” programan parte hartzeko deialdia argitara eman du.***
***Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko eta Merkataritza Departamentuak sustapen lan hau egiteko ondorengo proiektuak aurkeztu ditu:***
***. Larunbateko azoketara zenbat jende etortzen den jarraipen-azterketa eta bisitarien profila.***

- ***MLTB-GATCen funtzioak dituen kanpo-aholkularitza kontratatzea***
- ***Euskal Herria plazako birgaitze lanak***
- ***Euskal Herria plazako lokalen erosketa***

***Aurkeztu diren proiektuak Tolosako merkataritza sustatzeko asmoarekin eginak daude.***

***Aurrerakin horien arabera, eta Alkatetza honek legez dituen ahalmenez baliatuta,***

***ERABAKI DU***

***Lehenik.-***

*Ondorengo proiektu hauek aurkeztea 2009ko Eusko Jaurlaritzak argitaratutako “Merkagune-Herri Merkataritza” merkataritza-lankidetzako zonako estrategiak sustatzeko laguntzak” programan kontuan hartuak izan daitezen.*

| KONTZEPTUA | AURREKONTUA |
|---|---|
| ***Larunbateko azoketara zenbat jende etortzen den jarraipen-azterketa eta bisitarien profila.*** | ***3.000*** |
| ***MLTB-GATCen funtzioak dituen kanpo-aholkularitza kontratatzea*** | ***45.000*** |
| ***Euskal Herria plazako birgaitze lanak*** | ***186.062*** |
| ***Euskal Herria plazako lokalen erosketa*** | ***185.938*** |
| ***GUZTIRA*** | ***420.000*** |

***Bigarren.-***

*Hurrengo Gobernu Batzarrari gaia proposatzea erabakia berbaieztatu ahal izateko”.*

**6.-<u>Aprobación de la 17ª Certificación de las obras de rehabilitación del edificio 1-A de Euskal Herria plaza para Centro Estable de Marionetas</u>.**

Vista la factura nº 346/09 presentada por Construcciones Amenabar, S.A., correspondiente a la 17ª certificación de las obras de rehabilitación del edificio 1-A de

Euskal Herria Plaza para centro estable de marionetas, cuyo importe total, IVA incluído, asciende a la cantidad de 396.031,70 €.

La Junta de Gobierno por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Aprobar el abono de la factura reseñada en la parte expositiva del presente acuerdo.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Construcciones Amenabar,S.A., y al departamento de Intervención.

**7.- 8. zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzailetzak 8. faktura-zerrendak aurkeztu du, 200.226,49 €-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA.-** Aipatutako 8. faktura-zerrendak onartzea.

**BIGARREN.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik, ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:**

**Tolosako Haur-Eskola: bost orduko edo gutxiagoko kuota dutenentzako diru laguntza.**

Tolosako Udalak 2008ko uztailaren 1ean egindako Osoko Bilkuran erabaki zuen ordura arte Udal Haur Eskola izan zena Haurreskolak Partzuergoan sartzea.

Titularitate aldatze horrek aldaketa batzuk ekarri ditu, besteak beste, kuotetan. Lehen lau ordu eta erdiko kuota bat bazegoen, 72 eurokoa —KPIa aplikatuta 75en bat euro izango zena— eta Partzuergoak 5 ordu baino gutxiago eramateagatik 145 euroko kuota dauka. Igoera oso handia denez, Udalak adierazi zuen (Haur Eskolako Batzordea 2008-06-04) beka-politika bat aplikatuko zuela eta hobaria edo bonifikazioa emango ziela familiei: familiek kuota hori ordainduko zuten, baina, gero, Udalak bi kuoten arteko aldea emango zuen, 70 euro hain zuzen.

Aurreko ikasturtetik zetozen ikasleei aplikatzen hasi bada ere hobari hori, dauden irizpideak bateratze aldera, baldintzak betetzen dituzten gainerako familiei ere aplikatuko zaie.

Nolanahi ere, egokitze edo doitze bat egin behar da; izan ere, 5 ordu edo gutxiagoko kuota, lehen hilabetean, 135 euro da; beraz, lehen hilabete horregatik Udalak 60 euroko diru laguntza emango du. 2-3 taldekoak, berriz, 120 euro ari dira ordaintzen. Udalak, hortaz, hileko 45 euroko laguntza emango die dagokien familiei. Era berean, hurrengo ikasturtean aurtengo irizpide berberak erabiliko dira.

Azpimarratu behar da, azkenik, diru-laguntza hori 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetan aplikatuko dela soilik; hau da, 2010eko uztailaren 31n amaituko da hobari honen aplikazioa. Nolanahi ere, bonifikazio hau aplikatzeko, gurasoek Tolosan erroldatuta egon behar dute matrikula-data baino urtebete lehenagotik gutxienez.

Tolosako Udalak diru laguntza hori hiru epetan ematea erabaki zuen: lehendabizi, iraila - abendua; gero, martxoaren bukaeran, urtarrila - martxoa epeari dagokiona; eta azkenik, uztailean bideratuko du gainerakoa (apirila - uztaila). Aurreko urtetik zetozen ikasleei bi epetakoa emanda dagoenez, orain likidazioa-edo egin beharko da baldintzak betetzen dituzten gainerakoekin ea egokiena izango da  bi epeak batean bideratzea: iraila - martxoa.

Aurreko guztia kontuan izanda, eta Euskara eta Hezkuntza Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Bost orduko edo gutxiagoko kuota duten familiekin azalpenean adierazitako diru laguntzaren likidazioa egitea.

**BIGARRENA**.- Onartzea iraila - martxoa epeari dagokion diru laguntzaren zenbatekoa eta jaso behar dutenen zerrenda. Guztira:  7.720,00 euro.

**HIRUGARRENA**.- Gainerako diru laguntzak dekretu bidez bideratzea.

**LAUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Euskara eta Hezkuntza departamentuari.

**EZ.7 "Gorostidi-Voith" eremuko 4. partzelako erdiko plazan lurpeko aparkaleku bat eraikitzeko obrak adjudikatzea/ Adjudicación de las obras de construcción de un aparcamiento subterráneo en la Plaza Central de la Parcela 4 del area RE.7 "Gorostidi-Voith".**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran onartu zuen klausula

Esta Junta de Gobierno, en sesión celebrada el día 30 de marzo último, aprobó el pliego de cláusulas

administratiboen agiria, EZ.7 “Voith-Gorostidi” eremuko 4. partzelako erdiguneko plazan, lur azpian, aparkalekuak eraikitzeko lanak kontratatzeko, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

administrativas para la contratación de los trabajos de construcción de aparcamientos subterráneos en la plaza central de la parcela 4 del área RE.7 “Voith-Gorostidi”, por procedimiento negociado sin publicidad.

Aipatu agirian oinarrituta, proposamena eskatu zitzaion LANDU PROMOZIOAK, S.L.ri.

En base a dichos pliegos se solicitó propuesta a LANDU PROMOZIOAK, S.L..

Ikusirik aurkeztutako proposamena eta hartarako udal arkitektoak egindako txostena, eta Hirigintza Batzordeak jaulkitako diktamena-rekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

A la vista de la propuesta presentada, del informe emitido al respecto por el arquitecto municipal y el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I  DU**

**A C U E R D A**

**LEHENA.-** Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta behin-behineko izaerarekin adjudikatzea Landu Promozioak, S.L.ri, EZ.7 “Voith-Gorostidi” eremuko 4. partzelako erdiguneko plazan, lur azpian, aparkalekuak eraikitzeko lanak, hurrengo termino hauetan:

**PRIMERO**.- Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar provisionalmente a LANDU PROMOZIOAK, S.L., los trabajos de construcción de aparcamientos subterráneos en la plaza central de l parcela 4 del área RE.7 “Voith-Gorostidi”, en los siguientes términos:

Prezioa: Milioi bat, laurehun eta berrogeita hamazortzi mila, laurehun eta hogeita bost euro eta bederatzi zentimo (1.458.425,09 €), B.E.Z. barne.

Precio.- Un millón cuatrocientos cincuenta y ocho mil cuatrocientos veinticinco euros y nueve céntimos (1.458.425,09€), IVA incluído.

Epeak: 6 (sei) hilabete, kontratua formalizatzen den egunetik 30 eguneko epean zuinketa akta egiten denetik aurrera kontatuta.

Plazos.- Seis (6) meses, contados a partir del acta de replanteo a realizar en el plazo de 30 días desde la fecha de formalización del contrato.

**BIGARRENA**.-Kontratuaren behin-behineko adjudikaziodunari jakinaraztea eta errekeritzea aurkezteko, behin-behineko adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo hamabost laneguneko epearen barruan, behin betiko bermea, 62.863,15 eurokoa (hirurogeita bi mila, zortziehun eta hirurogeita hiru euro eta hamabost zentimo).

**SEGUNDO**.- Notificar el acuerdo y requerir al adjudicatario provisional del contrato para que presente, dentro de los quince días hábiles siguientes al de la fecha de publicación de la adjudicación provisional en el Perfil del contratante, la garantía definitiva por importe de 62.863,15 €(sesenta y dos mil ochocientos sesenta y tres euros y quince céntimos de euro).

**HIRUGARRENA.-** Kontratuaren behin-behineko adjudikazioa argitaratzea, dagokio iragarkiaren bidez, kontratatzailearen profilean.

**TERCERO**.- Publicar la adjudicación provisional del contrato mediante anuncio en el Perfil del Contratante.

**LAUGARRENA**.-Behin-behineko adjudikazioa automatikoki behin betiko bihurtuko da, kontratistak, 15 laneguneko gehienezko epearen barruan, aurreikusitako jarduketak gauzatzen dituen unean.

Betebehar hori gauzatzen denean, buletinean publikatzea behin betiko adjudikazioa.

**CUARTO**.- Establecer que la adjudicación provisional quedará elevada automáticamente a definitiva desde el momento en que, dentro del plazo máximo de 15 días hábiles, el contratista lleve a cabo las actuaciones previstas.

Cumplido el requisito, publicar la adjudicación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**BOSTGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea LANDU PROMOZIOAK, SL,ri Hirigintza eta Kontuhartzaile departamentuei.

**QUINTO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a LANDU PROMOZIOAK, S.L., y a los departamentos de Intervención y Urbanismo.

**Eraikuntza eta urbanizazio ordenantzak idazteko lanak adjudikatzea/ Adjudicación de los trabajos de redacción de las ordenanzas de edificación y urbanización.**

Gobernu Batzar honek, aurtengo martxoaren 9an egindako bilkuran, Tolosako Urbanizazio eta Eraikuntzarako udal ordenantzak egin et idazteko lanak kontratatzeko baldintza administratiboen agiriaonartu

Esta Junta de Gobierno, en sesión celebrada el día 9 de marzo último, aprobó el pliego de cláusulas administrativas pra la contratación de los trabajos de elaboración y redacción de ls Ordenanzas municipales de

zen.

Agiri horretan oinarrituta ondoren zehazten diren 3 taldeei proposamenak eskatu zitzaizkien:

**1.-** AGM arquitectos, SLP.
**2.-** Mikel Iriondo, Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba.
**3.-** FIARK Arquitectos SLP.

Hiru taldeek aurkeztu dituzte proposamenak.

Proposamenak eta hauek buruz udal arkitektoak idatzi duen txostena ikusita eta Hirigintza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**<u>LEHENA</u>**.- Lizitazioa ontzat ematea eta kontratua, behin behineko izaeraz, esleitzea Mikel Iriondo, Manue Arruabarrena eta Santiago Pelalba jaunek osatzen duten taldeari, Tolosako Urbanizazio eta Eraikuntzarako udal Ordenantzak egin eta idazteko, ondorengo baldintzetan:

<u>Prezioa:</u> 34.220 € BEZa barne.

<u>Epeak:</u> Hasierako onarpenerako dokumentua egiteko, bost (5) hilabete, ebazpen hau jaso et bioharamunetik zenbatuta.

Alegazioei buruzko txostena egin eta behin betiko onespenerako dokumentua idazteko bi (2) hilabeteko epea, alegazioak aurkezteko epea amaitzen denetik.

**<u>BIGARRENA</u>**.- Behin behineko

Urbanización y Edificación de Tolosa.

En base a los pliegos aprobados se solicitó propuesta a los tres equipos siguientes:

**1.-** AGM arquitectos SLP.
**2.-** Mikel Iriondo, Manu Arruabarrena y Santiago Peñalba.
**3.-** FIARK Arquitectos SLP.

Los tres equipos han presentado las propuestas solicitadas.

Vistas las mismas, el informe emitido por el Arquitecto Municipal y el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**<u>PRIMERO</u>**.- Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar provisionalmente al equipo formado por D. Mikel Iriondo, D. Manu Arruabarrena y D. Santiago Peñalba, los trabajos de elaboración y redacción de las Ordenanzas Municipales de Urbanización y Edificación de Tolosa, en los siguientes términos:

<u>Precio</u>: 34.220 € (IVA incluído).

<u>Plazos</u>.- Cinco (5) meses, contados a partir desde la recepción de esta resolución, para la elaboración del documento de aprobación inicial.

Dos (2) meses desde la finalización del plazo de alegaciones pra informar las alegaciones y redactar el documento de aprobación definitiva.

**<u>SEGUNDO</u>**.- Notificar la adjudicación

adjudikazioa jakinaraztea adjudikaziodun suertatu ez direnei.

provisional a todos los licitadores que no han resultado adjudicatarios.

**HIRUGARRENA**.- Behin behineko kontratuaren adjudikaziodunari jakinaraztea eta errekeritzea aurkezteko, behin-behineko adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo hamabost laneguneko epearen barruan, behin betiko bermea, 1.711,00 eurokoa (mila, zazpiehun eta hamaika euro).

**TERCERO**.- Notificar y requerir al adjudicatario provisional del contrato para que presente, dentro de los quince días hábiles siguientes al de la fecha de publicación de la adjudicación provisional en el Perfil del Contratante, la garantía definitiva por importe de 1.711,00€ (mil setecientos once euros).

**LAUGARRENA.-** Kontratuaren behin-behineko adjudikazioa argitaratzea, dagokio iragarkiaren bidez, kontratatzailearen profilean.

**CUARTO**.- Publicar la adjudicación provisional del contrato mediante anuncio en el Perfil del contratante.

**BOSTGARRENA.-** Behin-behineko adjudikazioa automatikoki behin betiko bihurtuko da, kontratistak, 15 laneguneko gehienezko epearen barruan, aurreikusitako jarduketak gauzatzen dituen unean.

Betebehar hori gauzatzen denean, buletinean publikatzea behin betiko adjudikazioa.

**QUINTO**.- Establecer que la adjudicación provisional quedará elevada automáticamente a definitiva desde el momento en que, dentro del plazo máximo de 15 días hábiles, el contratista lleve a cabo las actuaciones previstas.

Cumplido el requisito, publicar la adjudicación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00 etan.**

**Beh. Beh. ALKATEA** **IDAZKARIA**